

ABIADURA HANDIKO TRENAREN INGURUKO IRITZIEN AZTERKETA

**(EUSKAL Y PROIEKTUAK KALTETZEN DITUEN UDALERRIETAN
BIZI DIREN BIZTANLEEI EGINDAKO INKESTA; 2007KO OTSAILA)**

EMAITZEN TXOSTENA

SUSTATZAILEA:



Harremanetarako: **657705677**

Talde teknikoa:

- Josu Amezaga
- Joseba Azkarraga
- Iñaki Barcena
- Asier Blas
- Andoni Eizagirre
- Amaia Elizagarate
- Ander Iturriotz
- Iñaki Iurrebaso
- Josu Larrinaga
- Marta Luxan
- Cesar Martinez
- Txoli Mateos

DONOSTIA, 2007-03- 07

AURKIBIDEA

SARRERA	3
IKERKETAREN FITXA TEKNIKOA	4
A/ HERRITARREK ABIADURA HANDIKO TRENAREN INGURUAN DUTEN INFORMAZIOARI BURUZ	6
1. LAUTIK HIRUK ABIADURA HANDIKO TRENAREN INGURUAN INFORMAZIO GUTXI EDO BATERE EZ DUTELA DIOTE (%23AK SOILIK DIOTE INFORMAZIO ASKO EDO ZERBAIT DUTELA)	6
2. EUSKAL Y-ARI LOTUTAKO GAI ZEHATZEI BURUZ GEHIENGOAREN EZ EZAGUTZA OROKORRA DA, ETA GALDETUTAKO GAI GUZTIEI ERAGITEN DIE	7
3. BIZTANLEEK DUTEN INFORMAZIO MAILAREN ADIERAZGARRI DEN DATU BAT: %35 EZ DAKITE TRENAREN IBILBIDEA BERE UDALERRITIK PASATZEN DENIK ERE (ETA SOILIK %19AK EZAGUTZEN DUTE TRENA BERE UDALERRIKO ZEIN TOKITATIK PASATZEA AURREIKUSTEN DEN)	9
B/ INSTITUZIOEK BIZTANLERIARI ZABALDUTAKO INFORMAZIOAREN ETA ERABAKIETAN PARTE HARTZEKO ESKAINITAKO AUKEREN INGURUAN	11
4. GEHIENGO ZABAL BATEK USTE DUTE (%69) INSTITUZIOEK ESKAINI DUTEN INFORMAZIOA EZ DELA NAHIKOA IZAN. GAINERA, GEHIENGO ABSOLUTUA DIRA ERE INSTITUZIOEK ESKAINITAKO INFORMAZIOA ALBORATUA ETA INTERESATUA IZAN DELA USTE DUTENAK	11
5. HERRITARREI EZ ZAIE ESKAINI PARTE HARTZEKO TARTERIK; HORI USTE DUTE PROIEKTUAK KALTETUTAKO UDALERRIETAN BIZI DIRENEN %71K	13
6. INSTITUZIOEK HERRITARREI PARTE HARTZEKO ESKAINITAKO AUKEREN INGURUAN DATU ESANGURATSU BAT: SOILIK PERTSONEN %1A GONBIDATU DUTE INOIZ AHTREN INGURUKO FOROREN BATETAN PARTE HARTZERA (GEHIENAK UDALERRI EDO JENDARTE MAILAKO EKIMENETAN)	14
C/ ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONEK AHT-Z EGINGO LUKETEN ERABILPENAREN AURREIKUSPENA	15
7. GEHIENEK EUSKAL Y-A EZ LUKETE BEHIN ERE ERABILIKO, EDO IA INOIZ EZ; %0,3-AK EGUNERO ERABILIKO LUKEELA DIO ETA %2-AK ASTERO	15
D/ ABIADURA HANDIKO TRENARI BURUZKO IRITZIAK	16
8. AHT-RI BURUZKO IRITZI OROKORRA: ELKARRIZKETATUEN IA ERDIEK EZ DUTE ALDEKO EDO AURKAKO IRITZIRIK ADIERAZTEN, ETA GAIARI BURUZKO INFORMAZIO EZA NABARMENTZEN DUTE. BESTE ERDIA IA ERDIBITUTA AGERTZEN DA PROIEKTUAREN AURKAKOEN (%25) ETA ALDEKOEN (%23) ARTEAN	16
9. INFORMAZIOA ETA DESINFORMAZIOA; AHT-REN AURKAKO ETA ALDEKO JARRERAK. HARREMAN ESANGURATSUAK	17

SARRERA

Txosten honetan 2007ko otsailean **AHTren proiektuak kaltetuko dituen udalerrietan** egindako ikerketaren emaitzak aurkezten ditugu. Ikerketa honen beharra ***AHT gelditu! Elkarlanak azaldu zuen.***

Ikerketaren helburu nagusiak, ***Euskal Y*** deituriko proiektuaren arabera (www.euskalyvasca.com) AHTa pasako litzatekeen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrietan bizi diren **herritarrek gai honen inguruan duten informazio maila ezagutzea; instituzioek herritar horiei luzatutako informazioa eta eskainitako parte hartzeko aukerak ezagutzea; eta azkenik, proiektuari buruz duten iritzia ezagutzea** izan dira. Aldi berean, ikerketa hiru hiriburuetara eta Irungo udalerrira ere luzatu dugu, AHTak geltokiak izatea aurreikusten diren hirietako herritarrek gai horiei buruz duten iritzia ezagutzeko ere.

Ikerketaren diseinuan, zuzendaritzan eta aholkulari gisa honako unibertsitateko irakasle eta ikerkuntza sozialean adituek parte hartu dute:

- Josu Amezaga. Soziologoa, Doktorea eta EHU-UPV-n Gizarte eta Informazio Zientzien fakultateko irakaslea.
- Joseba Azkarraga. Soziologoa, ikertzailea eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea.
- Iñaki Barcena. Soziologia eta Zientzia Politikoetan lizentziaduna eta EHU-UPV-n irakaslea.
- Asier Blas. Politika eta Administrazio Zientzien fakultateko irakaslea EHU-UPV-n
- Andoni Eizagirre. Zientzia Politiko eta Administrazioetan lizentziaduna.
- Amaia Elizagarate Sagastibeltza. Soziologoa eta ikerlaria.
- Ander Iturriotz Lauzirika. Soziologia eta Zientzia Politikoetan lizentziaduna; Filosofian lizentziaduna. EHU-UPV-n irakaslea eta Doktorea.
- Iñaki Iurrebaso Biteri. Soziologoa eta ikerlaria.
- Josu Larrinaga. UPV-EHU-n soziologo, irakasle eta ikerlaria.
- Marta Luxan. Soziologoa, EHU-UPV-n irakaslea.
- Cesar Martinez. EHU-UPV-n irakaslea, soziologia II. saila.
- Txoli Mateos González. Soziologia eta Zientzia Politikoetan lizentziaduna. EHU-UPV-n Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean irakaslea. Doktorea.

Ondorengo orrietan ikerketa honen ezaugarri teknikoak eta ondorio nagusiak azalduko ditugu.

IKERKETAREN FITXA TEKNIKOA

Unibertsoa: Abiadura Handiko Trenaren proiektuak kaltetutako udalerrietan bizi diren 15 urtetik gorako herritarrak (Eusko Jaurlaritzak www.euskalyvasca.com orrian aurkeztutako proiektuaren arabera). Zehazki, unibertsoa, ondoren zehazten diren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 42 udalerrietan bizi diren 15 urtetik gorako 316.153 pertsonen osatzen dute:

HERRIALDEA	Zonaldea	Udalerría	Biztanleak guztira (INE, 2006)	Biztanleak +15 (INE, 2005)	HERRIALDEA	Zonaldea	Udalerría	Biztanleak guztira (INE, 2006)	Biztanleak +15 (INE, 2005)
ARABA	Araba herriak	Gasteizko kontzejtuak	1738(*)	1500(*)	GIPUZKOA	Zumarraga-Beasain-Legorreta	Urretxu	6.778	5.788
		Arrozua-Ubarandia	862	714			Zumarraga	10.078	8.841
		Legutio	1.517	1.323			Ezkio-Itsaso	549	489
		Aramaiio	1.490	1.302			Ormaiztegi	1.268	1.082
		Araba herriak	5.607	4.839			Beasain	12.682	10.890
ARABA GUZTIRA			5.607	4.839			Ordizia	9.188	7.728
BIZKAIA	Basauri-Arrigorriaga-Galdakao	Basauri	43.626	39.396			Itsasondo	591	492
		Arrigorriaga	12.245	10.324			Legorreta	1.414	1.215
		Zaratamo	1.651	1.410			Zumarraga-Beasain-Legorreta	42.548	36.525
		Galdakao	29.374	25.748			Alegia	1.671	1.433
		Bedia	984	861		Tolosa	17.877	15.413	
	Basauri-Arrigorriaga-Galdakao		87.880	77.739		Hernialde	334	279	
	Zornotza-Durango-Elortio	Lemoa	2.817	2.488		Alegi-Tolosa-Andoain	1.777	1.493	
		Amorebieta-Ebano	17.112	14.669		Asteasu	1.424	1.156	
		Iurreta	3.901	3.593		Zizurkil	2.861	2.403	
		Izurtza	251	238		Aduna	368	302	
Durango		27.040	22.739	Andoain		14.082	12.367		
Abadiño		7.163	6.237	Alegi-Tolosa-Andoain		40.394	34.846		
Abxondo		1.441	1.262	Umieta		5.896	4.852		
Zornotza-Durango-Elortio		66.841	57.474	Hernani		18.943	16.131		
BIZKAIA GUZTIRA			154.721	135.213	Urdieta-Hernani	4.242	3.490		
GIPUZKOA	Eskoriatza-Arrasate-Bergara-Antzuola	Leintz-Gatzaga	257	217	Errenteria	37.853	33.358		
		Eskoriatza	3.926	3.403	OIartzun	9.829	8.235		
		Arrasate/Mondragón	22.312	20.181	Urdieta-Hernani-Errenteria-OIartzun	76.763	66.066		
		Bergara	14.853	13.065	GIPUZKOA GUZTIRA			203.126	176.101
		Antzuola	2.073	1.798	GUZTIRA			363.454	316.153
Eskoriatza-Arrasate-Bergara-Antzuola		43.421	38.664						

Iturria: INE, 2006 eta 2005eko populazio kopuruak.

(*) Abiadura Handiko Trenak kaltetutako Gasteizko kontzejuetan bizi den populazioa, prentsan azaldutako informazioan nahiz estimazio propioetan oinarrituta kalkulatu.

Lagina: zoriz aukeraturiko **669** pertsonen osatua, beste horrenbeste etxebizitza partikularretan bizi direnak. Laginaren herrialdekako eta zonaldekako banaketa honako taulan ageri da.

Datuak gerora ponderatuak izan dira galdetutako pertsonen lurraldekako eta zonaldekako banaketa errearen nahiz profil sozio demografikoaren (sexua eta adina) arabera.

Landa lana. Informazioaren bilketa **2007ko otsailaren 22-26 bitartean** burutu zen, Abiadura Handiko Trenaren eraikuntzak kaltetutako udalerrietan bizi den populazioaren lagin erakusgarri bati egindako banakako **telefono elkarrizketa bidez**, horretarako **galdesorta egituratua** erabiliz.

HERRIALDEA	Zonaldea	Lagina
Araba	Araba herriak	99
	Araba	99
Bizkaia	Basauri-Arrigorriaga-Galdakao	144
	Zornotza-Durango-Elorrio	107
	Bizkaia	251
Gipuzkoa	Eskoriatza-Arrasate-Bergara-Antzuola	70
	Zumarraga-Beasain-Legorreta	67
	Alegi-Tolosa-Andoain	64
	Urnietta-Hernani-Erreterria-Oiartzun	118
	Gipuzkoa	319
GUZTIRA		669


Akats tartea \pm % 3,8koa da, % 95,5 konfiantza mailarekin $p=q$ =%50,0 denerako.

Aldi berean, ikerketa hiru hiriburuetan eta Irunen ere egin da: Aipaturiko irizpide eta prozedura teknikoak jarraituta, ikerketa paralelo bat egin dugu Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Irungo udalerrietan (proiektuak AHT-ren geltokiak izango direla aurreikusten duen udalerrietan). Bertan 15 urtetik gorako 723.207 pertsona bizi da. Hiriburuetakoa lagina 553 pertsonen osatu dute; honek, \pm %4,2ko akats tartea ematen digu hiriburuetakoa –eta Irungo- datuetarako (beti ere %95,5 konfiantza mailarekin $p=q$ =%50,0 denerako).

A/ HERRITARREK ABIADURA HANDIKO TRENAREN INGURUAN DUTEN INFORMAZIOARI BURUZ

1. LAUTIK HIRUK ABIADURA HANDIKO TRENAREN INGURUAN INFORMAZIO GUTXI EDO BATERE EZ DUTELA DIOTE (%23AK SOILIK DIOTE INFORMAZIO ASKO EDO ZERBAIT DUTELA)

OINARRIZKO DATUAK. AHTaren proiektuak kaltetuko dituen udalerrietan bizi direnen gehiengo zabalak proiektu honekin zerikusia duten gaien inguruan informazio gutxi edo informaziorik ez duela dio (%33ak eta %42ak, hurrenez hurren). Aitzitik, bostetik batek soilik (%21) dio informazio zerbait duela eta berrogeita hamarretik batek (%2ak) informazio asko duela.



SEGMENTUKAKO AZTERKETA. Datuak segmentuka aztertzerakoan, informazio gutxi edo batere informaziorik ez dutenak gehiengo dira segmentu guztietan. Halere, informazio gutxi dutela dioten pertsonen ehunekoa handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino. Datuak lurraldeka aztertuz gero, informaziorik ez dutela adierazi duten pertsonak gehiago dira Bizkaian beste lurraldeetan baino, Basauri-Arriorriaga-Galdakao inguruan bizi direnak batez ere. Halere, nabarmendu beharreko datua informazio gutxi edo informaziorik ez dutela dioten pertsonak aztertutako segmentu guztietan gehiengo direla da.

Informazio maila OROKORREAN


	GUZTIRA	SEXUA		ADINA				HERRIALDEA ETA ZONALDEA									
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	15-29	30-44	45-59	60 edo +	ARABA	BIZKAIA	Basauri- Arrigorriaga- Galdakao	Zomotza- Durango- Elorrio	GIPUZ- KOA	Eskoriatza- Arrasate- Bergara- Antzuola	Zumarrag- a- Beasain- Legoreta	Alegi- Tolosa- Andoain	Umieta- Hemani- Errenteria Oiartzun	
Asko	2	2	3		1	3	5	1	1	0	2	3	6	5	3	1	
Zerbait	21	17	25	23	19	22	21	25	21	17	26	21	22	19	31	15	
Gutxi	33	35	31	37	38	31	26	34	24	20	29	40	46	44	38	35	
Bat ere ez	42	45	39	38	41	43	45	39	50	57	42	36	25	32	28	48	
Ez daki-Erantzunik ez	2	3	1	3	2	1	2	1	4	6	1	0				1	
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

HIRIBURUAK. Hiriburuetako biztanleek emandako erantzunak ildo beretik doaz: %44ak batere informaziorik ez dutela diote, %33ak informazio gutxi dutela, %18ak zerbait eta %5ak informazio asko.

2. EUSKAL Y-ARI LOTUTAKO GAI ZEHATZEI BURUZ GEHIENGOAREN EZ EZAGUTZA OROKORRA DA, ETA GALDETUTAKO GAI GUZTIEI ERAGITEN DIE

OINARRIZKO DATUAK. AHT-ren ibilbideak kalteturiko udalerrietan bizi diren herritarren artean hautemandako informazio eza, are nabarmenagoa da AHT-ri buruzko gai zehatzei buruz galdetuz gero. Bada galdetutako gai zehatz guztietan errepikatzen den konstante nabarmen bat: kasu guztietan, gehiago zabala dira gutxi edo batere ez informatuta daudela uste duten pertsonak. Are gehiago, jorratutako gai guztietan, ingurugiroari eragingo lizkiokeen kalteen gaiaren inguruan izan ezik, gehiago absolutuak (%50ak baino gehiagok) batere informaziorik ez duela adierazten du.

Gainerakoan, gai batzuei eta besteei buruz informazio maila ezberdinak daudela ikus daiteke. Aipatzekoa da ia inork ez duela txartelen salneurriaren inguruan edota AHT-a erabiliko luketen bidaiari kopuruaren aurreikuspenaren inguruan informaziorik. Bestalde, jendearen pertzepzioaren arabera informatuago daude AHT-ren aurkako mugimenduarentzat garrantzia berezia duten bi gaien inguruan (nahiz eta hautan ere gehiengoak uste duen informazio gutxi edo batere ez duela): alegia, AHT-k ingurugiroan eragingo lituzkeen ondorioen inguruan eta nekazaritzan eragingo lituzkeen inguruan.



SEGMENTUKAKO AZTERKETA. Informazio gutxi edo batere ez izatearen hautematea aztertutako gai eta segmentu guztietara hedatzen da. Hala bada, gertaera arras orokor baten aurrean gaude.

AHTren inguruko gaien informazio maila: informazio gutxi edo batere ez dutela uste dutenen ehunekoa (% gelaxka bakoitzean)


	GUZTIRA	SEXUA		ADINA				HERRIALDEA ETA ZONALDEA									
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	15-29	30-44	45-59	60 edo +	ARABA	BIZKAIA	Basauri- Arrigomai- a- Galdakao	Zomotza- Durango- Elorrio	GIPUZ- KOA	Eskoriatza- Arrasate- Bergara- Antzuola	Zumarrag a- Beasain- Legorreta	Alegi- Tolosa- Andoain	Umieta- Hemani- Errenteria Oiartzun	
Hiriburu arteko joan etorrien denbora	80	82	77	87	78	78	79	71	79	78	81	80	80	81	72	84	
Txartelen prezioa	93	93	94	97	93	91	94	97	93	92	96	93	88	99	89	95	
Erabiltzaile kopuruaren aurrikuspena	90	89	90	90	92	88	86	91	89	85	93	90	89	91	88	91	
Errepideko trafikoan eragina	74	78	70	76	73	72	76	70	78	77	80	71	62	79	65	75	
Zenbat diru kostakodun	77	78	76	74	76	75	83	76	78	78	78	76	80	80	69	76	
Ondorioak ekologian	60	63	56	52	58	57	69	58	67	71	63	53	46	58	46	60	
Ondorioak nekazaritzan	65	67	63	61	66	61	69	59	71	75	65	60	51	67	54	66	
TOTAL	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

HIRIBURUAK. Hiriburuetan eta Irunen bizi direnen erantzunak informazio eskasiaren ideia azpimarratzen dute. Hiriburuetakako inkestak ere adierazi dute informaziorik ez dutela, edo oso gutxi dutela, galdetu ditugun gai guzti-guztietan. Hots, hiriburu arteko joan etorriek iraungo duten denboraren inguruan (%74 informaziorik ez dute edo oso informazio gutxi dute), txartelen prezioaren inguruan (96%), erabiltzaile kopuruaren aurrikuspenen inguruan (93%), proiektuaren kostuaren inguruan (80%), ondorio ekologikoen inguruan (70%), errepideko trafikoan izango duen eraginaren inguruan (76%) eta nekazaritzako jardueretan izango dituen ondorioen inguruan (80%) informaziorik ez dutela edo oso gutxi dutela adierazi dute gehienek. Nabarmendu behar da, aztertutako gai guztietan, hiriburuen arteko joan etorrien denborari buruzkoan izan ezik, hiriburuetan gehiago direla informaziorik ez dutela edo oso gutxi dutela adierazi dutenak, trenaren ibilbideak kaltetutako udalerrietan baino.

3. BIZTANLEEK DUTEN INFORMAZIO MAILAREN ADIERAZGARRI DEN DATU BAT: %35 EZ DAKITE TRENAREN IBILBIDEA BERE UDALERRITIK PASATZEN DENIK ERE (ETA SOILIK %19AK EZAGUTZEN DUTE TRENA BERE UDALERRIKO ZEIN TOKITATIK PASATZEA AURREIKUSTEN DEN)

OINARRIZKO DATUAK. Aurreko bi ataletan biztanleek beroiek duten informazio mailaren inguruko pertzepzio subjektiboa aztertu dugu. Jarraian, berriz, AHTrekin zerikusia duten gai zehatzen eta objektibagarrien inguruan informazio maila errealia neurtzea ahalbidetuko diguten hiru galderei emandako erantzunak aztertuko ditugu.

Lehenik eta behin, *Euskal Y* deituriko AHTren proiektuaren berri jende gehienak baduela esan behar dugu: bakarrik %12k adierazi digute ez dutela sekula proiektuaz deus entzun. Oinarrizko ezagutza hori, beraz, bai iritsi da biztanleriarengana. Ondoren, AHTren proiektuak azpiegitura hori bizi diren udalerrietatik igarotzea aurreikusten duela badakiten galdetu diegu elkarrizketatuei. Bada, proiektuak kaltetuko dituen udalerrietako biztanleen herenek baino gehiagok (%35) ez dute oinarrizko informazio hori ere ezagutzen. Azkenik, proiektuaren arabera AHTren ibilbidea bizi diren udalerrietako zein tokitatik pasako litzatekeen ezagutzen duten galdetuta, ez ezagutza maila asko handitzen da, eta bostetik hiruk (%62) adierazi dute ez dakitela bere udalerrian zein izango den trenaren ibilbidea. Horren parean, %19k adierazi dute ezagutzen dutela bere udalerriko zein tokietatik igaroko den AHT, eta beste %19k gutxi gora beherako ideia bat badutela.



SEGMENTUKAKO AZTERKETA. Egindako irakurketa orokorra egokia da aztertutako segmentu gehienetarako. Halere, generoaren araberako ezberdintasunak aztertuz gero, gizonetako emakumeetako baino informazio gehiago dutela dirudi. Dena den, alde handienak lurraldearen araberakoak dira. Horrela, informazio gehien duten pertsonak, AHTren proiektuak kaltetzen dituen Arabako udalerrietakoak, Bizkaian Zornotza-Durango-Elorrio ingurukoak eta Gipuzkoan Eskoriatza-Arrasate-Bergara-Antzuola ingurukoak dira. Informazio maila apur bat txikiagoa da Basauri-Arrigorriaga-Galdakao inguruan.

Informazio maila (objektiboa): herritarren sailkapena


	GUZTIRA	SEXUA		ADINA				HERRIALDEA ETA ZONALDEA									
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	15-29	30-44	45-59	60 edo +	ARABA	BIZKAIA	Basauri- Arrigorriaga- Galdakao	Zornotza- Durango- Elorrio	GIPUZ- KOA	Eskoriatza- Arrasate- Bergara- Antzuola	Zumarrag a- Beasain- Legorreta	Alegi- Tolosa- Andoain	Umieta- Hemani- Errenteria Oiartzun	
Ez dute AHTari buruz hitz egiten entzun	12	14	10	14	11	12	12	6	12	18	4	12	8	9	14	16	
Ez dakite euren herritik pasako litzatekeen ere	25	26	25	24	26	19	32	7	33	47	15	20	7	11	20	32	
Ez dakite euren herrian nondik joango litzatekeen	24	24	24	26	24	30	18	30	19	14	26	27	31	44	25	18	
Nondik joango litzatekeen gutxi gora behera dakite	19	20	19	14	17	23	21	24	17	14	21	21	19	21	25	20	
Badakite euren herritik nondik joango litzatekeen	19	16	23	22	22	16	17	33	19	7	33	20	36	16	16	13	
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

HIRIBURUAK. AHTren proiektuaren inguruko ez ezagutza maila oraindik handiagoa da hiriburuetan udalerrietan baino. Horrela, hiriburuetan bizi diren bost biztanleetatik lauk ez dakite, ezta urrik ere, bere hirian AHTren ibilbidea zein tokitatik igaroko litzatekeen. Zehazki, hiriburuetakoko biztanleak horrela banatzen dira duten oinarritzko informazio mailaren arabera: %18k ez dute AHTren proiektuaren berri, %22k badute proiektuaren berri baina ez dakite trena bere hiritik pasatzekoa denik, %39k badakite trena bere hiritik pasatzekoa dela baina ez dakite zein leku zehatzetatik. Azkenik, %11k adierazi digute badakitela trena nondik igaroko litzatekeen eta %10k ideia bat badutela.


B/ INSTITUZIOEK BIZTANLERIARI ZABALDUTAKO INFORMAZIOAREN ETA ERABAKIETAN PARTE HARTZEKO ESKAINITAKO AUKEREN INGURUAN

4. GEHIENGO ZABAL BATEK USTE DUTE (%69) INSTITUZIOEK ESKAINI DUTEN INFORMAZIOA EZ DELA NAHIKOA IZAN. GAINERA, GEHIENGO ABSOLUTUA DIRA ERE INSTITUZIOEK ESKAINITAKO INFORMAZIOA ALBORATUA ETA INTERESATUA IZAN DELA USTE DUTENAK

OINARRIZKO DATUAK. Elkarrizketatuei instituzioek AHTren proiektuari buruz eskainitako informazioaren inguruko balorazioa egiteko eskatu diegu, eta emaitzak erabatekoak izan dira. Adierazgarria da elkarrizketatutako hamar pertsonetatik soilik batek (%11) uste izatea eskainitako informazioa *nahikoa* izan dela. Ostera, hamar elkarrizketatuetatik zazpik (%69) adierazi dute informazio hori *gutxiagizkoa* izan dela, eta hamarretik bik (%20) nahiago izan dute ez erantzun edo informazio maila baloratzen ez luketela jakingo adierazi dute.



Informazio horren izaerari buruz galdetuta berriz, soilik %12k uste dute instituzioek eskainitakoa informazio *inpartziala* eta *objektiboa* izan dela, *alboratua* eta *interesatua* izan dela uste duten gehiengo absolutuaren (%54) parean.



Beraz, eskainitako informazioaren inguruan, AHTren proiektuak kaltetutako udalerrietan bizi diren biztanleen sentipena argia da: instituzioek eskainitako informazioa *gutxiagi* izan da, eta *ez objektiboa* eta *ez inpartziala*.

SEGMENTUKAKO AZTERKETA. Aztertutako segmentu guztietan eskainitako informazioa *gutxiegi* izan dela uste dutenak gehiengo badira ere, ezberdintasun adierazgarri batzuk ere atzematzen dira. Hots, emakumezkoak gizonezkoak baino kritikoago azaltzen dira, eta pertsona gazteak helduak baino gehiago.

Segmentu guztietan gehiengo dira ere eskainitako informazioa *alboratua* eta *interesatua* izan dela uste dutenak. Dena den, iritzi hauek indar handiagoa dute gazteen artean helduagoen artean baino. Eta, Zornotza-Durango-Elorrio eta Urnieta-Hernani-Erreterria-Oiartzun inguruetan ere indar handiagoa erakusten dute, gainontzeko zonaldeetan baino.

Erakundeek AHT-ari buruz emandako informazioa: nahikoa edo gutxiegi?

	GUZTIRA	SEXUA		ADINA				HERRIALDEA ETA ZONALDEA									
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	15-29	30-44	45-59	60 edo +	ARABA	BIZKAIA	Basauri- Amigoriag a- Galdakao	Zomotza- Durango- Elorrio	GIPUZ- KOA	Eskoriatza- Arrasate- a- Bergara- Antzuola	Zumarrag a- Beasain- Legorreta	Alegi- Tolosa- Andoain	Umiet- Hemani- Erreterria Oiartzun	
Nahikoa	11	7	16	8	10	10	17	10	10	9	10	13	13	14	12	12	
Gutxiegi	69	72	65	72	75	67	59	84	78	79	75	62	48	66	60	69	
Ez daki-Erantzunik ez	20	21	19	20	15	23	24	6	13	12	15	26	38	20	28	19	
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	


Erakundeek AHT-ari buruz emandako informazioa: objektiboa edo interesatua?

	GUZTIRA	SEXUA		ADINA				HERRIALDEA ETA ZONALDEA									
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	15-29	30-44	45-59	60 edo +	ARABA	BIZKAIA	Basauri- Amigoriag a- Galdakao	Zomotza- Durango- Elorrio	GIPUZ- KOA	Eskoriatza- Arrasate- a- Bergara- Antzuola	Zumarrag a- Beasain- Legorreta	Alegi- Tolosa- Andoain	Umiet- Hemani- Erreterria Oiartzun	
Inpartziala / Objektiboa	12	7	16	10	11	10	15	13	9	9	10	14	19	13	14	10	
Interesatua / alboratua	54	51	58	60	57	56	44	52	52	43	64	56	52	57	53	59	
Ez daki-Erantzunik ez	34	42	26	30	32	34	41	35	39	49	25	31	29	30	34	30	
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

HIRIBURUAK. Hiriburuetakoko biztanleen gehiengoak ere uste dute instituzioek eskainitako informazioa *gutxiegi* izan dela (%66ak uste du hori, *nahikoa* izan dela uste duten %13aren parean). Informazioaren izaerari buruz, berriz, gehiago dira *alboratua* eta *interesatua* izan dela uste dutenak (%35), *objektiboa* eta *inpartziala* izan dela uste dutenak baino (%14). Dena den, gehiengoak (%51) adierazi dute ez dakitela nola epaitu informazio hori. Orokorrean, hiriburuetakoko biztanleak oso kritikoak dira jasotako informazioarekin, baina udalerrietan bizi direnak baina apur bat gutxiago.

5. HERRITARREI EZ ZAIE ESKAINI PARTE HARTZEKO TARTERIK; HORI USTE DUTE PROIEKTUAK KALTETUTAKO UDALERRIETAN BIZI DIRENEN %71K

ONARRIZKO DATUAK. Soilik hamar pertsonetatik batek (%10) uste du AHTren proiektuaren inguruko eztabaidetan eta erabakietan jendartearen parte hartzea ahalbidetzeko eskaintako tartea nahikoa izan dela. Ostera, hamar pertsonetatik zazpik (%71) uste dute ez zaiola eskaini parte hartzeko tarte nahikorik.



SEGMENTUKAKO AZTERKETA. Aztertutako segmentu guztietako biztanleak ados agertu dira parte hartzeko tartea ez dela nahikoa izan baloratzerako garaian. Iritzi kritiko hau, ordea, indar gehiagorekin azaltzen da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino, gazteen artean helduenen artean baino eta Arabako eta Bizkaiko biztanleen artean Gipuzkoako biztanleen artean baino (Urnietan-Hernani-Errenteria-Oiartzun inguruko herritarren salbuespenarekin).


Herritarrei eztabaida eta erabakietan parte hartzeko eskaini zaizkien bideak nahikoak izan direla uste al duzu?

	GUZTIRA	SEXUA		ADINA				HERRIALDEA ETA ZONALDEA								
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	15-29	30-44	45-59	60 edo +	ARABA	BIZKAIA	Basauri- Arrigomiatz- a- Galdakao	Zomotza- Durango- Elorrio	GIPUZ- KOA	Eskoriatza- Arrasate- Bergara- Antzuola	Zumarrag- a- Beasain- Legorreta	Alegi- Tolosa- Andoain	Urnietan- Hernani- Errenteria- Oiartzun
Bai	10	11	9	10	10	7	12	6	7	6	8	12	14	14	16	9
Ez	71	65	77	79	76	64	66	79	78	76	80	66	58	59	65	74
Ez daki-Erantzunik ez	19	24	14	11	14	29	21	15	16	18	12	22	28	27	18	17
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

HIRIBURUAK. Hiriburuetan bizi direnen %11k soilik uste dute AHTren gaian parte hartzeko ireki den tartea nahikoa izan dela; aldiz, %62 aurkakoa pentsatzen du (%27k ez daki edo ez du erantzun).

6. INSTITUZIOEK HERRITARREI PARTE HARTZEKO ESKAINITAKO AUKEREN INGURUAN DATU ESANGURATSU BAT: SOILIK PERTSONEN %1A GONBIDATU DUTE INOIZ AHTREN INGURUKO FOROREN BATETAN PARTE HARTZERA (GEHIENAK UDALERRI EDO JENDARTE MAILAKO EKIMENETAN)

ONARRIZKO DATUAK. Hona hemen AHTren inguruko gaietan herritarrek izan dituzten parte hartzeko aukeren inguruko datu esanguratsu bat: instituzioen baten aldetik AHTren inguruan duten iritzia emateko inoiz gonbidapenik jaso duten galdetuta, %97k zuzenean ezetz erantzun dute, inoiz ez dutela horrelako gonbidapenik jaso. Osera, soilik %1k dio inoiz gonbidatua izan dela fororen batetara bere iritzia ematera.



Gainera, %1 eskas horren azterketa zehatzago batek zera erakusten digu; fororen batetan parte hartzeko aukera izan duten gutxi horietako gehienak, udaletxeak gonbidatuta (herri galdeketetan edo eztabaida foroetan) edo jendarte eta herritar ekimenek gonbidatuta izan dela. Aldiz, elkarrizketatutako 669 pertsonetatik soilik bi pertsonak adierazi digute Eusko Jaurlaritzarekin gaiaren inguruko nolabaiteko harremana izan dutela: horietako batek (AHTren lanek zuzenean kaltetua) adierazi digu AHTren inguruko proiektu idatzi bat jaso duela etxean, eta besteak, gaiaren inguruan bere iritzia galdetu zitzaiola adierazi digu, baina gero bere iritzia ez zirela kontuan izan. Gainerako 667 pertsonak (laginaren %99,7) ez dute Eusko Jaurlaritzatik gaiaren inguruan bere iritzia emateko inolako gonbidapenik jaso.

SEGMENTUKAKO AZTERKETA. Aztertutako segmentu guzti-guztietan hamarretik bederatzik baino gehiago dira instituzioen aldetik AHTren inguruan bere iritzia ematera fororen batetara gonbidatuak ez direla inoiz izan adierazi digutenak.

Zuk zeuk, jaso al duzu inoiz erakunde publikoren baten gonbitea Abiadura Handiko Trenaren inguruko fororen batean zure iritzia emateko?


	GUZTIRA	SEXUA		ADINA				HERRIALDEA ETA ZONALDEA									
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	15-29	30-44	45-59	60 edo +	ARABA	BIZKAIA	Basauri- Arrigomiaz a- Galdakao	Zomotza- Durango- Elorrio	GIPUZ- KOA	Eskoriatza- Arrasate- Bergara- Antzuola	Zumarrag a- Beasain- Legorreta	Alegi- Tolosa- Andoain	Umieta- Hemani- Errenteria Oiartzun	
Bai	1	2	1		2	2	1	6	1		3	1		1	3		
Ez	97	96	97	100	97	95	96	93	98	99	96	96	97	95	94	97	
Ez daki-Erantzunik ez	2	2	2		2	3	3	1	1	1	1	3	3	3	3		
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

HIRIBURUAK. Kasu honetan hiriburuetako biztanleen portzentajeak guztiz bat egiten dute herrietakoekin: soilik %1 gonbidatu dute inoiz fororen batetan parte hartzera, AHTren inguruan bere iritzia ematera inoiz gonbidatua izan ez den %97ren parean (%2 ez du erantzun nahi izan edo ez daki).

C/ ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONEK AHT-Z EGINGO LUKETEN ERABILPENAREN AURREIKUSPENA

7. GEHIENEK EUSKAL Y-A EZ LUKETE BEHIN ERE ERABILIKO, EDO IA INOIZ EZ; %0,3-AK EGUNERO ERABILIKO LUKEELA DIO ETA %2-AK ASTERO

ONARRIZKO DATUAK. Azkenean eraikiko balitz, AHT zein maiztasunez erabiliko luketen galdetuta, hiru laurdenek behin ere ez luketela erabiliko (42%), edo urtean zehar noiz edo noiz erabiliko luketela diote (34%). Horiei guztiei AHT hilean behin edo behin erabiliko lukeela dioen %9-a gehitu dakieke.



Aitzitik, ez da %1era iristen AHT egunero erabiliko luketela dioten portzentajea; zehazki, AHT egunero edo ia egunero erabiliko luketela dioten pertsonak galdekatutakoen %0,3 izan dira. Beste %2 batek AHT astean behin edo behin erabiliko luketela esan dute. Ez dirudi, beraz, azkenean egingo balitz, populazioaren inongo segmentu esanguratsuk proiektatutako azpiegitura ohikotasunez erabiliko luketenik.

SEGMENTUKAKO AZTERKETA. Burututako azterketa baliogarria da, oro har, aztertutako segmentu guztientzako. Horietan guztietan, gutxiengo txiki batek baizik ez luke AHT asteroko maiztasunaz gutxienez erabiliko. Edozein kasu, badirudi, emakumezkoek gizonezkoek baino are gutxiago erabiliko luketela AHT.

Zenbatero erabiliko luketen AHT


	GUZTIRA	SEXUA		ADINA				HERRIALDEA ETA ZONALDEA									
		Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	15-29	30-44	45-59	60 edo +	ARABA	BIZKAIA	Basauri-Arrigorriag-a-Galdakao	Zomotza-Durango-Elorrio	GIPUZ-KOA	Eskoriatza-Arrasate-Bergara-Antzuola	Zumarrag-a-Beasain-Legorreta	Alegi-Tolosa-Andoain	Umieta-Hemania-Errenteria-Oiartzun	
Ez nuke sekula erabiliko	42	45	40	48	43	39	43	65	33	28	39	50	47	51	49	51	
Urtean noiz edo noiz	34	31	37	28	31	38	40	24	40	35	46	30	31	31	38	24	
Hilabetean noiz edo noiz	9	9	9	11	10	9	7	4	12	13	10	7	9	10	4	7	
Astero	2	2	3	4	2	2	3	3	4	6	1	1	1	2		2	
Egunero	0	1					1		0	1		0				1	
Ez daki-Erantzunik ez	11	12	11	10	15	13	7	5	12	17	4	11	13	6	9	15	
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

HIRIBURUAK. Hiriburuetan bizi diren pertsonen gehiengo nagusiak ere ez dute uste AHT ohikotasunez erabiliko luketenik: %31ak behin ere ez luketela erabiliko diote, %39ak urtean behin edo behin erabiliko luketela eta %6ak hilean behin edo behin. Gehiagotan erabiliko luketenak, logikoki, herrietan baino gehiago dira, baina ez dira %5era iristen: zehazki, %1ak egunero erabiliko luketela diote eta %3ak astero.

D/ ABIADURA HANDIKO TRENARI BURUZKO IRITZIAK

8. AHT-RI BURUZKO IRITZI OROKORRA: ELKARRIZKETATUEN IA ERDIEK EZ DUTE ALDEKO EDO AURKAKO IRITZIRIK ADIERAZTEN, ETA GAIARI BURUZKO INFORMAZIO EZA NABARMENTZEN DUTE. BESTE ERDIA IA ERDIBITUTA AGERTZEN DA PROIEKTUAREN AURKAKOEN (%25) ETA ALDEKOEN (%23) ARTEAN

ONARRIZKO DATUAK. Elkarrizketatutako pertsonen AHT-ri buruz duten iritzi orokorrari buruz galdetuta, beste behin ere populazioaren informazio eza nabarmentzen da. Hala, %46ak gaiari buruzko iritzi orokorra osatu ahal izateko informazio gehiago beharko luketela diote. Posizioen bat hartzen dutenak ia-ia erdibiturik agertzen dira proiektuaren aurkakoak (%25) eta aldekoak (%23) artean.



SEGMENTUKAKO AZTERKETA. Aztertutako segmentu guztietan, gehiengoak dira gaiari buruzko iritzi orokorra osatu ahal izateko informazio gehiago beharko luketela diotenak. Gainerakoan, badirudi, AHT-ren aldeko jarrera errotuago dagoela gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. Adinari erreparatuta ezberdintasun nabarmenak antzematen dira: gazteen artean proiektuaren aurkakoak (%40) erraz bikoizten dituzte AHT-ren aldekoak (%18); aitzitik, 60 urtetik gorakoen artean, proportzioak irauli egiten dira (%34 alde, %13 kontra). Bizi diren lurraldeari erreparatuta, AHT-rekiko aurkakotasuna nabarmenagoa da ibilbideak kaltetutako arabar udalerrietan, baita Zornotza-Durango-Elorrion eta Alegi-Tolosa-Andoainen ere. Eskoriatza-Arrasate-Bergara-Antzuolan eta Urnieta-Hernani-Erreterria-Oiartzunen ere AHT-ren aurka agertzen diren pertsonak alde agertzen direnak baino gehiago dira. Aztertutako bi inguruetan soilik (Basauri-Arrigorriaga-Galdakaon eta Zumarraga-Beasain-Legorretan) dira AHT-ren alde agertzen direnak kontra agertzen direnak baino gehiago. Edozein kasutan, ez da aztertutako inguru bakar batean ere posizioen baten edo besteren erabateko hegemoniarik antzematen, eta guztietan adierazgarria da iritzi orokorra osatu ahal izateko informazio gehiago beharko luketela dioten pertsonen kopuru handia.

AHT-ri buruzko iritzi orokorra


	GUZTIRA	SEXUA		ADINA				HERRIALDEA ETA ZONALDEA									
		Emaku- mezkoa	Gizo- nezkoa	15-29	30-44	45-59	60 edo +	ARABA	BIZKAIA	Galdakao	Zomota- Durango- Elorrio	GIPUZ- KOA	Eskoriatza- Arrasate- Bergara- Antzuola	Zumarrag a- Beasain- Legorreta	Alegi- Tolosa- Andoain	Umiet- Hernani- Erreterria Oiartzun	
AHTaren aldekoak	23	20	27	18	19	23	34	14	27	32	20	21	24	28	16	18	
AHTaren kontrakoak	25	25	25	40	29	22	13	34	21	11	35	28	26	22	32	29	
Informazio gehiago behar du	46	49	43	41	49	48	43	44	48	51	44	44	43	41	49	45	
Beste erantzunak	2	1	2	1	2	2	2	6	1	2		2	2	4		1	
Ez daki-Erantzunik ez	4	6	2		1	6	8	2	2	3	1	5	5	5	4	6	
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	

HIRIBURUAK. Hiriburuetan ere gehiengoak dira (%45) gaiari buruzko iritzi orokorra osatu ahal izateko informazio gehiago beharko luketela diotenak. Halere, alde batera edo bestera egiten dutenen artean, herrietan ez bezala, gehiago dira AHT-ren aldeko jarrera agertzen dutenak (%41) proiektu horrekiko aurkakotasuna agertzen dutenak baino (%9). Azkenik, gainontzeko %5ak ez dakiela dio edo nahiago du erantzunik ez eman.

9. INFORMAZIOA ETA DESINFORMAZIOA; AHT-REN AURKAKO ETA ALDEKO JARRERAK. HARREMAN ESANGURATSUAK

ONARRIZKO DATUAK. Galdekatutako pertsonen duten informazio mailaren eta AHT-rekiko jarreraren arteko harremana aztertuta, harreman esanguratsuak atzeman ditugu. Lehenik eta behin, aurreikus daitekeen moduan, informazio maila zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da proiektuari buruzko iritzirik eman ez eta iritzia emateko informazio gehiago beharko luketela dioten pertsonen ehunekoa. Eta alderantziz, logikoki, zenbat eta informatuago egon, orduan eta handiagoa da AHT-ren aurkako edo aldeko iritzia ematen dutenen portzentajea.

Bigarrenik, AHT-ri buruzko iritzia, jendarteak gaiari buruz duen oinarrizko informazio mailarekin harremanetan jarritz (Euskal Autonomia Erkidegoan Abiadura Handiko Tren bat eraikitzeko egitasmoa badela ezagutzen duten ala ez, proiektuaren arabera tren hori beren udalerritik pasako litzatekeela ezagutzen duten ala ez, eta udalerriko zein tokitatik pasako litzatekeen dakiten edo ez); nabarmentzekoa da, AHT-ren aldeko iritzia hedatuago daudela informazio gutxi ala bat ere ez duten sektoreen artean, eta aldiz, AHT-ren kontrako iritzia nagusitu egiten direla galdekatutako pertsonen informazio mailak gora egin ahala. Hala, informazio gutxien duten pertsonen artean (hots, AHT proiektuaren berri ez zutenen, edota egitasmoaren arabera AHT beren udalerritik pasako litzatekeela ez zekitenen artean) gehiago dira nabarmen AHT-ren alde azaltzen direnak kontra azaltzen direnak baino. Aitzitik, informazio gehien dutela adierazi duten pertsonen artean, jarrerak irauli egiten dira, eta gehiengo zabala dira AHT-ren aurka agertzen direnak (%68 aurka eta %32 alde).



Azkenik, harreman zuzena antzematen da, jendeak informazio gehiago duen gaiaren eta AHTrekiko jarreraren artean. Hala:

- hiri batetik bestera joateko beharko litzatekeen denboraren inguruan, errepideetako trafikoa izango Euskal Y-ak lukeen eraginaren inguruan, tren erabiliko luketen bidaiari kopuruen aurreikuspenaren inguruan edota bidai txartelen salneurriaren inguruan oso edo nahikoa informatuta daudela irizten dioten pertsonen, AHTrekiko aldeko jarrerarako joera gehiago azaltzen dute.
- egitasmoaren koste ekonomikoaren, ekologian eragingo lituzkeen kalteen eta nekazaritzan eragingo lituzkeen kalteen inguruan informatuen azaltzen zaizkigun pertsonen, berriz, AHTren aurkako jarrerarako joera agertzen dute.

HIRIBURUAK. Hiriburuetan ere informazio mailaren eta iritzia arteko harreman hori ematen da. Hots, proiektuaren aldekoak eta aurkakoak soilik kontutan hartzen baditugu, gainontzeko erantzunak eman dituztenak alde batetara utzita, iritzia ezberdinak dira informazio mailaren arabera. Horrela, AHT proiektuaren berririk ez dutenen artean, proiektuaren aldekoak (%90) aurkakoak (%10) baino askoz gehiago dira. Beste muturrean, hirian AHTren ibilbidea zein izango den ezagutzen dutenen artean banaketa orekatuagoa da, eta aldekoen portzentajea %69ra jaisten da eta aurkakoena %31ra iristen da.